

Atzerria otserria? Egohistoriatik historia transnazonala egitera

(Foreign land; a strange land? From ego-history to making transnational history)

Aizpuru, Mikel

Univ. del País Vasco/Euskal Herriko Unib. Komunikazio eta Gizarte Zientzien Fak. Historia Garaikidea Saila. Sarriena, z/g. 48940 Leioa
mikel.aizpuru@ehu.es

BIBLID [1136-6834 (2011), 37; 323-329] Jaso: 2011.02.18
Onartu: 2011.03.22

Hirsnqakn ikarleek beqeziki hirsnqa nqknqqa ikari aqpen, beq ikeqkesa-eqemt a snikikna izan nhi da esa lan hnqek nazin-ersast aqen hirsnqan insqgqpszen diqa. Hat rnaqkesa gt xñ dagn, nqlea, geqqa-eqqa hnqpen mnqpnnszen ingt q an. Et rkal hirsnqalaqnn kart an, nna lizaseke kanonqa (ez beqeziki Eroainiaqqa) gehiagn begiqpszea. Bide hnqpsan, oqnonramen insqqr gaqqa izan daiseke hirsnqa sqnrrnazinnala, hirsnqa akademikna esa onrrsmndeqna bainn hnbes t zsaqpszen balsa gizaqpsan, eknnn-mian ednsa onliskan geqpszen aq diqen aldakesekin.

Gilsa-Hizsak: Hirsnqngqpfia. Hirsnqa sqnrrnazinnala. Hirsnqa akademikna.

At npt e lnr alt mnnr de hirsnqa ct qan eroecialmense hirsnqa en geneqpl, el ámbisn de inuersiqación en rt r sqpbajnr rt ele reqmaynqmense lncal y ernr sqpbajnr re insqqr en la hirsnqa del ersadn-nación. Se ha qeflexinnadn oncn rnbq lar limisacinner pt e cnnllea era ciqqt nrsancia. En el carn de lnr hirsnqadnqer uarcnr, reqa bt enn miqpmár al exsqdnq(nn necer aqamense a Eroaña). En erserensidn, cnn lnr cambinr pt e re ersán dandn a niuel ecnnómicn y onliscn, reqa insqqransq la hirsnqa sqnrrnacinnal, pt e re insqqr mejnqen la rnciedad pt e la hirsnqa académicna n la onrrsmndeqna.

Palabqar Clauq: Hirsnqngqpfia. Hirsnqa sqnrrnacinnal. Hirsnqa académicna.

Bien pt e ler ést diansr d'hirsniq qeçniuens der cnt q d'hirsniq génécqle, le dnmaine de qecheqche de let q squat x send à èsq errensiellemens lncal es let q squat x r'inrcquens danr le cadq de l'hirsniq de l'Ésasnasinn. Oq il cnnuiens de qfléchiq rt qler cnnsqpsinse liér à cesse ciq cnnrsance. Ler hirsnqenr barpt er deupiens ainri re oencheq dauansage rt q l'exsqdjet q (es oar nqcerraiqmens l'Eroagne). En ce renr, cnmose sent der changemens écnnnmipt er es onliscpt er pt e nnt r uiunnr à l'het q acst elle, l'hirsniq sqnrrnasinnale reqais olt r insqqransq, caqmiet x insqgée danr la rnciésé pt e l'hirsniq académipt e nt onrrsmndeqne.

Mnsr-Clér : Hirsnqngqphie. Hirsniq sqnrrnasinnale. Hirsniq académipt e.

Espainiako unibertsitate-sisteman ikasi duen historialari edo ikerlaria, prestakuntza formaleko urteak bukatutakoan, konturatzen da jaso duen Historia-curriculumaren atzean paradoxa handi bat dagoela. Ikasketen zatirik handiena Munduko Historia bereganatzen pasatu du; Historia Unibertsala deitu zaio, nahiz eta kasu gehienetan Europa edo Mediterraneo inguruetan gertatutakoetara mugatu. Garrantzi gutxiago eman zaio Espainiako Historiari. Eta horren atzetik etortzen da –kasurik onenean– Euskal Herriko Historia. Are gutxiago lantzen da edo ez da batere lantzen lurraldeko edo eskualdeetako Historia. Ikasketak amaitzen ditueanean, ezer gutxi daki ikasleak Gipuzkoako, Nafarroako edo Gasteizko Historiari buruz. Beste behin ere Unibertsitateak muzin egiten dio pedagogiak defendatzen duen “hurbilekotik urrutikora”, “ezagunetik ezezagunera” estrategiari.

Baina ikasketetan jasotakoa hori izan arren, ikertzen hasten denean hurbilekoa izaten da historialari gaztearen esparru “naturala”. Salbuespen gutxi eza gutzen ditut eta, normalean, jakintza-arloak –sailak– horretara behartutakoak izaten dira. Egoera hori ez da bereziki larria, nahiz eta maiz ikerlari gazteek arazo dezente izaten dituzten aztertu nahi duten esparruaren nondik norakoaz jabetu arte. Hainbat faktore aipa daitezke errealitate hori azaltzeko: jakintza-arlo –sailen bitartez– bakoitzak bere kideak gai batzuetara bideratzeko eta makurrarazteko duen joera dugu horietako bat, ez baita kasualitatea diziplina deitzea jakintza-arlo bakoitzari. Ikertzeko behar diren diru-iturriak lortzeko zailtasuna dugu beste faktore bat. Eta, azkenik, gure artean kanpoko hizkuntzarik ez jakiteak sortzen digun muga estua ere kontuan hartu beharreko beste argudio bat da.

Egoera bitxi horrek hausnarketa gutxi bultzatu du orain arte; are gehiago, ohi-koa da “tokiko historia” lantzeko joeraren aurkako iritziak entzutea ikerlarien artean, eta “tokikokeria” edo hurbilekora mugatzeko joera Espainiako autonomien garapenaren ondorio kaltegarriekin lotzea. Izan ere, 1979tik aurrera sortutako erakundeek gizarte-zientzietan bultzatu dituzten lanen esparru ia bakarra autonomiaren herrialdea izan da¹. Gure kasuan, lurralde historikoen presentziak areagotu egin du kontu hori. Era bitxian gainera, Arabak eta Nafarroak nortasun historiografikoa lortu duten bitartean, urte asko dira Bizkaiko eta Gipuzkoako historia orokorrik argitaratu ez dela, bai aldiz, udal historia ugari². Luze tira daiteke mataza horretatik, bere alde onak eta txarrak arakatura³, baina alde batera utzi-ko dugu, beste hari bati heltzeko, landutako eremuari, hain zuzen.

“Historia” nagusiaren eskemaren barruan antolatu da tokiko historiaren ikerketa, kolokan jarri gabe haren planteamendu eta ajeak, salbuespenak salbues-

1. RUJULA, P. & PEIRÓ, I. (1999): *La Historia local en la España Contemporánea*, Universidad de Zaragoza-L Avenc, Zaragoza-Barcelona.

2. GRACIA, J. (1998): “Les “borses de treball” d historia local de Biscaia, cap a la culminació d un ambició projecte historiogràfic”, *Plecs d història local* 78, 49-56.

3. AGIRREAZKUENAGA, J. (1998): “Històries locals i microhistòries, un altre camí per a la recerca”, *Plecs d història local* 78, 44-46 eta CHUECA, J. (1998): “Apuntes sobre la història local al País Basc”, *Plecs d història local* 78, 47-48.

pen. Aje horien artean dago historialariok dugun lurraldearekiko atximendua⁴. Denbora-epeak edota subjektu historikoak aldatu edo berritu diren arren, nazio-estatuak jarraitzen du izaten historialarion berezko eremua, eta ondorioz, “nazionalistak” dira Historia-lan gehienak, kontzienteki edo ez, nazioaren historia dutelako helburu⁵. Horrela gertatu zen XIX. mendean, historialariek estatu-nazio berrien zilegitasuna bermatu zutenean eta horrela gertatzen da orain ere. Gure inguruko historialari gehienentzat Espainia da nazio hori. Beren burua “ez nazionalistatzat” hartu arren, eta beste batzuei nazionalista izatea leporatu arren, ez dute zalantzan jartzen espainiar nazioa. Asko aurreratu da historiaren ezagueran azken hamarkadetan, baina jatorrizko “bekatu” horrek gaintu ez dituen hainbat muga sortu dira. Nazio-historien arteko balizko talka dugu horietako bat.

Gehiago nahaspilatu da egoera azken urteetan. Fenomeno horren hasieraren epe zehatza jartzea zaila den arren, askoz ere agerikoagoa dugu azkeneko hogeitau urteetako munduaren konplexutasuna. Diruaren eta merkantzien trafikoez gain, etorkin ekonomikoen eta errefuxiatu politikoen mugimenduek askotarikotu egin dituzte gure gizarteak. Orain zailagoa da nortasun nazionalak eta kulturalak zehaztea, eta gero eta konplexuagoak eta gatazkatsuagoak dira haien arteko harremanak. Bidezkoa eta zuzena da pentsatzea ez direla gaurko fenomenoak bakarrik, iraganean ere izan zutela pisua. Testuinguru horretan, orain arte landu dugun Historia-mota, bere balioa ukatu gabe, hankamotz ari da gelditzen irakurle berrientzat.

Ez naiz hasiko harriak botatzen Historia “zaharraren” aurka; izan ere, nire ibilbide akademikoa bera oso klasikoa da –enpirista batena esan zidaten duela gutxi-. Bermeoko jauntxokeriari buruzkoa izan zen nire lehen lan mardula (1990), Gipuzkoako Euzko Alderdi Jeltzalea aztertu nuen (2000) tesian eta lurralde hori izan da nire ikerketa askoren esparrua. Beste lan batzuek Bizkaia (Barakaldoko historia, 2005) eta Araba (Legutianori buruzko lanak, 2001 eta 2008) izan dute jomuga. Lan teorikoagoek euskal abertzaletasuna eta espainiarra izan dute aztergai eta, gaiak berak eskatuta, ez dute alde batera utzi hurbileko eremua⁶.

Unibertsitatean irakatsi beharrekoek lagundu didate ikerketaren aipaturiko muga gaintuzten. Azkeneko hogeitau urteetan, ikasgai bat baino gehiago azaldu behar izan ditut Euskal Herriko Unibertsitateko ikastetxe bat baino gehiagotan.

4. SCHLÖGEL, K. (2003): *En el espacio leemos el tiempo. Sobre Historia de la civilización y geopolítica*. Madrid: Siruela.

5. C. de la Guardia Herrero & Pan-Montojo González, J. L. (1998): “Reflexiones sobre una Historia Transnacional”, *Studia histórica. Historia Contemporánea* 16, 10. or.

6. AIZPURU, M. (1990): *Eta Tiro Baltzari. Abertzaletasuna eta jauntxokeria Bermeon 1899-1914*, Udako Euskal Unibertsitatea, Bilbao; (2000): *El Partido Nacionalista Vasco en Guipúzcoa (1893-1923)*, UPV, Bilbao; (2005): *Auge, crisis y transformación de una ciudad industrial: Baracaldo en el siglo XX*, Librería San Antonio, Barakaldo; (2001): “Abertzaletasuna Araban: Legutianoko jeltkideak XX. mendean lehen herenean”, *Uztaro* 39, 53-61 eta (2008): “Gerra Zibila Euskal Herrian. Bide berriak: Legutianoko erasoaldia”, *Uztaro* 67, 33-56 eta (2001): “Sobre la astenia del nacionalismo español a finales del siglo XIX y comienzos del XX”, *Historia Contemporánea* 23, 811-849.

Euskal Herriko Historia ere izan da tartean, baina batez ere gai orokorrak tokatu zaizkit: Lanaren Gizarte Historia irakatsi dut Leioako Lan Harremanen Eskolan, Historia Garaikide Unibertsala eta hainbat hautazko Gasteizko Letren Fakultatean eta Egungo Mundua eta Gizarte-Mugimenduen Historia Leioako Gizarte Zientzien Fakultatean. Beti esan da irakaskuntza esker txarreko lana dela; ez dut bat egiten ideia horrekin, baina aitortu behar dut ikerketaren aldean onarpen publiko eta ofizial urria duela irakaskuntzak. Beste alde batetik, ikasgelako ikasleen bitartez ez bada, maiz ez da agertzen irakasleok egiten dugun ahalegina beste toki batzuetako nondik norakoaz jabetzeko eta geletan ezagutarazteko. Eskuliburuak prestatzea eta argitaratzea izaten da irtenbide bat, inguruko muga gainditzeko. Nire kasuan, 1994. urtean Antonio Riveraren batera kaleratu nuen *Manuel de Historia Social del Trabajo* eskuliburua (hurrengo urtean euskaraz plazaratu zena)⁷, 2004. urtean, Ramón Villaresen eta Angel Bahamonderen egungo munduari buruzko eskuliburua itzultzen aritu nintzen, beste bi lagunekin batera⁸ eta 2011. urtean, Fernando Martinezekin batera eskuliburu bat prestatu dut, ikasgai horretako ikasleentzat⁹. Jarduera horiei guztiei esker, nire ikerketa-esparrua tokikoa izan arren, ikuspegi zabalagoa eta oparoagoa izatea lortu dut –horrela pentsatu nahi dut, behintzat–.

Ildo horretan, neure egin ditut Historia klasikoa hobetzeko zabaldu diren hainbat proposamen. Konparazioaren garrantzia da horietako bat. Gizarte-Historiak bultzatutako azterketek maiz gailendu dute estatuaren markoa, ikuspegi berriak bilatu dituzte, nazioarteko esparrua lehenetsi dute edo tokiko esparrua aukeratu dute. Baina, hala ere, gutxitan lortu dute ez mugatzea estatu konkretu bati dagozkion arazoan ondorioz sortutako galderetara. Ikerketan herrialde bat baino gehiago aztertzea da egindako beste proposamen bat. Nire lan-arloan, esate baterako, zenbait herrialdetako nazionalizazio-prozesuen azterketa kritikoa lan-tzea bultzatu da. Horixe da Luis Castells-ek zuzentzen duen EHUko ikerketa-taldean egiten saiatzen ari garena; baina hor ere, nire gusturako, gehiegi lotuta gaudu Espainiako mugetara. Proposamen horiek eta beste batzuek historialarion ezinonari, ezinbestean gure lanak berriro beharri eta kultura- eta akademia-merkatuan toki bat izateko premiari erantzuten diote.

Nire kasuan, azkeneko urte hauetan abentura interesgarri eta, era berean, dibertigarri batean murgildu naiz. Arteako Abertzaletasunaren Agiritegian koka daiteke abenturaren hasiera, aipatutako ezinegon eta jakin-nahi giroan. 1936ko Gerra Zibileko Gipuzkoan frankistek zuzendutako errepresioa aztertzen ari nintzela, 2006ko otsailean idatz-izkribu bitxi bat aurkitu nuen, Constant Brusiloff irakasle eta erbesteratu errusiarrak idatzitako *Los republicanos en el Norte de*

7. AIZPURU, M. & RIVERA, A. (1994): *Manual de Historia Social del Trabajo*, Siglo XXI de España Editores, Madrid eta (1995): *Lana eginez goaz aurrera. Lanaren gizarte historiaren esku-liburua*, EHU, Leioa.

8. VILLARES, R. & BAHAMONDE, A. (2004): *Gaur egungo mundua. XIX eta XX. mendeak*, EHU, Bilbo.

9. MARTÍNEZ, F. & AIZPURU, M. (2011): *Gaur egungo munduaren historia 1945-2009*, UEU, Bilbo.

España txostena. Harrezkero, nire ibilbide historiografikoak bihurgune handi bat hartu du. Agindutako lana (errepresioarena)¹⁰ amaitu baino lehen, Brusiloffen ibilerek bereganatu zuten nire denboraren zati handi bat. Brusiloffek gerrari buruz eskaini zigun ikuspegia berria zen (kritika gogorak egiten zizkien errepublikar guztiei), baina gainera oso sistematikoa eta deigarria zen idatzitakoa. Xarma berezia zuen: aholkulari sobietarren itzultzaile moduan aurkeztu zuen bere burua eta ondorioz, iturri zuzena eta pribilegiatua zuen bere lana idazteko. Testua argitaratzea erabaki nuen eta bi lan egin nituen testuaren osagarri izan zitezten: batetik aholkulari sobietarrei buruz genekiena biltzeari ekin nion; bestetik, Brusiloff beraren bizitza berreraikitzen saiatu nintzen. Izan ere, gaur egungo sare informatikoei esker haren alabarekin –Ameriketara bizi da– harremanetan jaritzeko aukera izan nuen eta bere testigantzak aitaren inguruko argibide batzuk eman zizkidan eta makina bat zalantza sortu. Ez naiz luzatuko kontu honetan eta interesa duenak jo beza 2009ko ekainean plazaratu nuen *El informe Brusiloff* liburura (Alberdania), bertan biltzen baitira Brusiloff beraren lana, aholkulari sobietarrei buruzkoa eta Brusiloffen biografia. Horretarako zortzi herrialdetako agiritzekin izan nintzen harremanetan eta sei hizkuntzatan idatzitako testuak irakurri nituen –horietako batzuk irakurri egin zizkidaten–.

Brusiloffi buruzko lanak berez ez dauka berrikuntza metodologikorik; baliabide eta iturri gutxi batzuekin egindako biografia bat baino ez da; neke eta buruhauste ugari eman didana eta pozak ere bai. Baina historiografia klasikoan sailka daiteke inongo erreparorik gabe. Orain arte nik egindako lanekin alderatuz gero, diferentzia bakarrak dira biografia bat izatea lanaren gaia eta atzerritarra izatea pertsonaia. Dena den, bi elementu bereizgarri ere izan zituen ikerketak. Batetik, agerian jarri zidan espainiar historiografiaren urritasuna, nekez aurki baitzitezkeen niri interesatzen zitzaizkidan informazioak (Sobiet Iraultza, errusiarren erbestea, errefuxiatuen mundua) gaztelaniaz idatzita. Bestetik, galdera ximple batek askoz galdera eta gogoeta orokorrako eta interesgarriagoetara bideratu nau. Eta norabide hori oso erabakigarria izan da alde batetik azken urtetako nire lanaren zati handia azaltzen duelako, eta, bestetik, gaur egungo errealitatearekin lotura zuzena duelako. Honako hau izan zen galdera: zer-nolako agiriarekin heldu zen Brusiloff Espainiara? Errusiar erbesteratua zen Brusiloff eta Madrilen bizi zen gerra hasi baino hiru bat urte lehenagotik, 1933tik aurrera gutxi gorabehera. Baina Leninek 1921ean kendu zien exiliatuei nazionalitatea eta, ondorioz, pasaporteak, eta herrialde batetik bestera igarotzeko mila arazo izan zituzten 1917tik aurrera Errusia utzi zuten errefuxiatuek.

Kezka horri beste bat gehitu zitzaion berehala, zein izan zen Espainiako eta Europako gobernuen jarrera etortzen zitzaizkien atzeritarren aurrean? Eta galdera ximple horrek guztiz berria zitzaidan esparrua ireki zidan: atzeritarren presentzia Espainia Garaikidean eta gobernuak haiekin izandako portaera. Nire iker-

10. AIZPURU, M.; APAOLAZA, U.; GÓMEZ, J. M.; ODRIOZOLA, J. (2007). *1936ko udazkena Gipuzkoan. Hernaniko fusilatzeak*, Alberdania.

keta lehen fruituak ematen ari da¹¹, eta nire ohiko ikergaietara itzultzea bazterzen ez dudan arren, datozen urteetan fruitu gehiago emango dituela pentsatzen dut. Gaiak, edozein modutan, hausnarketa ugarirako aukera ematen du.

Gutziz adierazgarria da, adibidez, Espainiako historiografia garaikideak –Aro Berrikoak ez bezala– ia ez duela jorratu esparru hori. Eta ez da harritzekoa, XX. mendearen azken herenean argitaratu diren hainbat hiztegi historiko hartuz gero, ia ezinezkoa baita atzerritarra hitza aurkitzea. Egia da XIX. eta XX. mendeetan atzerritar gutxi etorri zela Espainiara bizitzera, baina ia historialari guztiok alde batera utzi ditugu. Atzean dagoen pentsamendua oso esanguratsua da, Espainiako nazio-eremuan bizi zirenak espainolak ziren eta ez zegoen bereizketarik egin beharrik. Adierazgarria da, era berean, azken urteetan, etorkinen fenomeno nabarmena den une honetan, arreta-falta mantentzea.

Lantzen ari nintzen ikerketari oinarri teorikoa bilatzen ari nintzaiola aurkitu nuen Historia Transnazonalaren kontzeptua. Adiera desberdinak ditu egileen arabera. Guztiek egiten dute bat Steven Vertovec-en definizio xumearekin: “refers to multiple ties and interactions linking people or institutions across the borders of nation-states”¹² edo Ian Tyrrell-ek emandakoarekin: “concerns the movement of peoples, ideas, technologies and institutions across national boundaries”¹³. Kiran Patel-en esanetan:

[...] los estudios transnacionales analizan los diferentes grados de interacción, relación, circulación, coincidencia e interrelación que superan el estado nacional. [...] La historia transnacional comprende el espacio como una categoría historiográfica central y de igual rango que el tiempo. En lo referente a la metodología se apoya especialmente en la comparación y el análisis de transferencias¹⁴.

Baina diferentzia nabarmenak daude, historialarien artean lan-esparruak fin-katzeko orduan. Batzuentzat historia diplomatiko klasikoa berritzeko modu bat da edo historia konparatua egiteko. Askoren ustez, aldiz, historia transnazonalaren oinarrian honako pentsamendua dago: eraikin historikoak dira nazioak, eta ondorioz, aldakorak. Muga hori gainditzeko gai izan beharko luke historialarion lanak; izan ere, arestian aipatu dugunez, nazioaren mugak, erakundeak eta tradizioak aldatu egiten dira denborarekin, eta aldaketa horietan toki garrantzitsua izaten dute –kasu batzuetan besteetan baino gehiago– kanpoko eraginek.

11. AIZPURU, M. (2009). “Retornos forzados: La expulsión de extranjeros indeseables en la España contemporánea, 1919-1935”, *Historia Contemporánea* 39, 591-626 eta “Los exiliados rusos en España, 1914-1936”, *Ayer* 78, 2010; 171-193.

12. VERTOVEC, S. (2009). *Transnationalism*, Routledge, Oxon.

13. TYRRELL, I. (2007). *What is What is transnational history?*, <http://iantyrrell.wordpress.com/what-is-transnational-history/>, [2009-08-25ean kontsultatua].

14. FARALDO, J. M. (2008). “Más allá de las relaciones internacionales. Nuevas tendencias centro-europeas en Historia Transnacional y Comparativismo”, AAVV (ed.), *Congreso de la Asociación de Historia Contemporánea*, Universidad de Murcia, Murcia.

Kontzeptua baliagarria izan daiteke XIX. menderako, estatua oraindik ahula zenerako eta dirua eta lana herrialde batetik bestera erraz mugitzen ziren garairako (pentsa dezagun Amerikarako euskal emigrazioan). Gaur egunerako ere baliagarria da, bizi ditugun aldaketen azterketarako beharrezkoa baitugu. Baina nazio-estatuaren “urrezko garairako” (XIX. mende bukaerarako eta XX. menderako) ere balio du; izan ere, orduko gertakizunek giza mugimendu handiak bultzatu zituzten, nahiz eta homogeneitate nazionalaren itzalpean ezkutaturik geratu, eta bigarren mailan, historiografiaren ikerketetan. Manex Goihenetxe zenak behin baino gehiagotan aipatu zuen Euskal Herriko historia lantzeko orduan, “Zazpiak Bat” ez ezik, “Zortziak bat” erabili behar genuela, Amerikako eta, orohar, erbestean bizi ziren euskaldunak kontuan hartu behar bai genituen. Han bizi izandako historiaz gain, asko itzuli egin ziren eta, gehiago edo gutxiago, bakoitza bere tokian eraldaketa bultzatzaile izan ziren.

Nazioak eraikitzeke orduan, are gehiago nazio-estatuak eraikitzean, pisu erabakigarria izan dute mugek eta mugen kontrolak. Gero eta fenomeno garrantzitsuagoak dira emigrazioa, erbestea eta diaspora, eta gero eta gehiago zuzenduko ditugu gure hausnarketak haien azterketara. “Nortasun deslokalizatuen” fenomenoia ere aztergai izango dugu; hau da, aztertu beharko dugu zer gertatzen den giza talde batek beste lurralde batera jotzen duenean, eta hala ere jatorriko kultura mantentzen duenean harrera-lurraldekoa bereganatu gabe, borondatez edo horretara behartuta.

Ez naiz formula magikoen aldekoa, ezta eskola historiografiko bat santutzearen aldekoa ere. Are gutxiago, lehenagoko lan bera izendatzeko hitz berriak erabiltzearen aldekoa. Aldaketa zentzudun eta iraunkorrenak pixkanaka egindakoak direla pentsatzen dut. Baina gure kasuan, euskal historialarion kasuan, ona litzateke kanpora (ez bereziki Espainiara) gehiago begiratzea. Bide horretan, proposamen interesgarria izan daiteke historia transnazonala, historia akademiko eta postmodernoa baino hobeto uztartzen baita¹⁵ gizartean, ekonomian edota politikan gertatzen ari diren aldaketekin. Ez dan lan erraza, norberaren gaitasunez eta ahalmenez gain, beste faktore batzuek ere eragina baitute hautuan, egitura akademikoen onarpenak eta diru-baliabideek, besteak beste. Bestalde, beharrezkoa da kanpoko agiritegiak, ikerlariak eta bibliografia ezagutzea, baina gaur egungo errealitateak eta informazioaren teknologiek asko erraztu dezakete bidezidor hori errepide zabal bilakatzea. Hala bedi.

15. SPIEGEL, G. (2009). “The Task of the Historian”, *American Historical Review* 114, 1, 1-15. Lanaren laburpena gaztelaniaz, <http://clionauta.wordpress.com/2009/03/06/gabrielle-m-spiegel-la-tarea-del-historiador/> [2009-08-26an ikusia].